VII. PAZKO DOMEKEA (A) JAUNAREN IGOKUNDEA
Gizarte Komunikabideen Munduko Jardunaldia
“Giza ahots eta aurpegiak jagon”

SARRERAKO OHARKIZUNA

Egun on, Jaunaren Igokunde honetan Eukaristia ospatzera etorri zareen guztioi:

Mendekoste egunaren atarikoa dan Jaunaren Igokundea ospatzen dogu gaur. Jesus, kurutzean josia, berbiztua, zerura igon dala, Jaungoikoaren bizitzan sartu dala gaurkotuko dogu.

Domeka honetan, pertsona bakotxaren duintasuna errespetatuko dan zuzentasun eta senidetasun handiagoko gizartea eraikitzera deituak izan gara. Lagun askok eta askok gaur egun be jasaten dituan indarkeria edo bazterketazko egoeren aurrean begiramena eta senidetasuna bizi izateko dei egin jaku.

Gaur, baita, Komunikabideen Munduko Eguna ospatzen dogu, «Giza ahots eta aurpegiak jagon» goiburuaren haritik. Aldaketa teknologiko azkarren eragina dauan munduan, egiaz, argitasunez eta barruko askatasunaz emon behar dogu barri, gure berbak eta gure keinuek alkartzea ekarri dagien beti, eta ez banaketa eta iruzurrik.

BIZTU DA JAUNA EGIAZ: ALELUIA!

Zatoze pozik Jaunagana.
Gora ta gora Hari kanta.
Jauna da Jainko,
Jauna da Jainko bere gaitu
Harek gu egin ta eratu.

ABADEAREN AGURRA

Maitasunaren eta bakearen Jaungoikoa egon bedi zuekin.

Jesus, kurutzeratua, berbiztua, zerura igo da. Jaungoikoaren bizitzan sartu da.

Horixe ospatzen dogu gaur Igokundearen domeka honetan, goratua ikustearen poza sentitzen dogunean; eta, egun baten, geuk ere beragaz betiko bizitza bizi izango dogula itxaroten dogu.

OHARRA URAZ BEDEINKATU AURRETIK

Pazko domeka honetan, ur *bedeinkatuaz txipriztinduz*, gure bizitzako une erabakigarria gogoratzen dogu: bateoaren bidez, Jesusen alkarteko kide egin ginan eta bere Espiritua jaso genduan. Egin daigun gaur barriro, Jesus gure bizia izan daiten beti.

URAZ BEDEINKATZEA : Hartuko dogu ura pozik...

Azkenean, abadeak dino:

Jaungoiko ahalguztidunak pekatutik garbitu gaizala eta, Eukaristia honen bidez, bere Erreinuko otorduan parte hartzeko duin egin gaizala. Amen.

AINTZA: Aintza eta ospe handiz zerura igoten dauan Jaunari abestu deiogun gorespen kantu hau:

Aintza, zeruetan, Jaungoikoari.

HITZAREN LITURGIA

Ap Eg 1, 1-11:

Apostoluen Eginak deituriko liburuak Eleizearen lehenengo pausoak jasoten ditu. Eta, bere lehenengo atalburuan, Jesusen zeruratzearen barri emoten deusku. Horixe entzungo dogu irakurgai honetan.

Erantzun-Salmoa: 46. salmoa

Oihu alaien artean igon da Jainkoa, horregaitik salmisteagaz bat egiten dogu, abestuz:



R/. Oihu alaien artean igon dau Jainkoak,
turuta-soinuz Jaunak.

Herri guztiok, jo egizue txalo,
egin pozez oihu eta irrintzi Jainkoari,
izugarria da-eta Jauna, Goi-goikoa,
mundu osoaren errege handia. R/.
Irrintzi artean igon dau Jainkoak,
turuta-soinuz Jaunak.
Kanta Jainkoari, kanta,
kanta gure erregeari, kanta. R/.

Jainkoa da mundu osoaren errege,
kanta trebetasunez hari.
Jainkoa nazinoen errege da,
Jainkoa bere tronu santuan dago jesarrita. R/.

Ef 1, 17-23:

Kristo berbiztua Jaungoiko Aitak bere eskoi-aldean jesarriazo dau. Fededunok Haren Gorputzeko atal gara eta guri ere azken bardina eskeintzen deusku.

Mt. 28, 16-20

Jesusek, zerura igon aurretik, bere apostoluak mundu zabalera bialtzen ditu Barri Ona iragarten. Eginkizun horretan Jaunaren laguntza beti izango dabe eurekin.

Goratu daigun, zerura igon daualako, betiko geugaz gelditu dan Jauna, *"Aleluia"* abestuz.

JAINKO HERRIAREN OTOITZA

Aurkeztu deioguzan Aitari gure eskariak, Berbiztuak gure alde eta gizadi osoaren alde egiten dauala jakinda.

—Eleizaren alde. Jaunak agindutako Espirituaren indarraz, Barri Onaren lekuko sinisgarri izan daiten beti, eta egia salbatzailea argitasunez eta maitasunez iragarri daian. Eskatzen deutsugu, Jauna.

—Agintarien alde. Bihotzaz hitz egin daien bakearen kultura sustatzeko gerra dagoan lekuan, eta alkarrizketa

eta adiskidetzerako bideak zabaltzen ahalegindu daitezan. Eskatzen deutsugu, Jauna.

—Komunikabideetan lan egiten dabenen alde. Erantzukizunez, egia lehenetsiz eta lagun bakotxaren duintasuna errespetatuz lan egin eta guztion ongizatea ahalbidetu daien. Eskatzen deutsugu, Jauna.

—Indarkeria, bazterketa, sexu-joerak eragindakoak jasaten dabezanen alde, errespetu, duintasun eta itxaropenez bizi izateko aukera izan daien, eta gu eurentzat, Barri Onetik sortzen diran maitasun eta senidetasunaren lekuko izan gaitezan. Eskatzen deutsugu, Jauna.

Jaungoiko ona, entzun gure otoitzak eta emoiguzu eskatu deutsuguna. Zure ondora igon dauan Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

JAUNARTZEAN

Biztu da gure Jauna? Hau poza, amaigabea!
Bada-ta zorionik: beste mundu bat, beti bizitzea (2).

Neuk ere nahi dot bizi izan Zugaz bat, betiko bizitzan, maitatu danakaz batean, berbiztuz, Jainko Aitarengan.

Biztu da gure Jauna? Heriotza ez da azkena!
Egun hori heltzean izango naz ni Jainko Aitarena (2).

Bizitza barri hori zer-zelan izan daiteken,
ezbaian banaz ere, Zeugan dot uste; salbau naizu, arren (2).

Ezagun ditu Jaunak zure min-atsekabeak,
baina izan uste on, hartuko zaitu zure Jaun-jabeak (2).

AZKEN AGURRA

Eukaristia amaitzean, goazen gure ingurura Jesusen Barri Ona zabaltzera. Pentekoste atarian zabaldu deioguzan gure bihotzak Espirituari eta astean zehar, behin eta barriro esan deiogun “Zatoz, Espiritu Santua”.

ZERU-LURREN ERREGINA: aleluia!, aleluia!
Biztu jaku Jesus Jauna: Aleluia!

—Zuregandik sortu dana: Aleluia.
Hilobitik zutitu da: Aleluia!

—Otoitz zure Semeari: Aleluia!
bizia deigun danori: Aleluia!